

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko apirilaren 27a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Txantrea • Gaur abiatuko dira jaiak egitarau zabal eta oparo baten baitan

Alfonso Arteaga • «Drogen prebentzioan ia guztia dago egiteko»

LARRU GORRITAN LOTSA BAZTERTUZ **LAZTANAK**
LARRUA UKITUZ **gozamena** Xurrupadak
GORPUTZ ZAPOREAK HARTUZ **Kidetasuna**
BEGIAK DENA PASATUZ **SAMURTASUNA** BEGIRADA
GOZAMENAREN IBAI ERTZEAN JOLASTUZ **XUXURLATZEA**
barrak

BEHATZ LEUNAK GORPUTZA LAZTANDUZ **fantasiak**
SOIN USAINAK SOMATUZ **NAHIA** **IRRIKA**
IRUDIMENA LANDUZ **kilikadura** irudimena
AMODIOA HURBILTASUNA **sentsualitatea**
GOZAMENA BANATUZ **ANIZTASUNA**



Sexualitatea eta gazteria

Sexuari loturiko beldur, mamu eta tabuei aurre egiteko tenorea zela uste izanik, hainbat taldek gazteei zuzendutako 'Gozamenez' kanpaina jarri zuten martxan joan den urtean Lekunberrin, Leitzaan, Lizarran, Tafallan eta Iruñean. Kanpainak izan duen harrera eta emaitzak aztertu ondoren, aurten Sakana eta Aezkoaldera ere zuzenduko dute ekimena; betiere, sexualitatea bizitzeko modu ugariaren gainean ikuspegi positiboa eta aberasgarria zabaltzearen.

Lizarra ●

Udaberrian kantari

Ereintza Abesbatzak musika korala abiapuntu duen Udaberriko IV. Zikloa antolatu du

Egitarau honetatik at, Ereintza Abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur Lizarrako Musika Banda eta Lizartarrak ganbera taldearekin, iluntzeko zortzietatik aitzina, San Juan elizan. Konponketa lanak direla-eta tenplua itxita egon da, eta gaur irekiko ditu berriro ateak, kontzertuarekin.

LIZARRAKO EREINTZA Abesbatzak Udaberriko IV. Musika Zikloaren egitaraua ezagutzera eman berri du. Martxoaren 31n Errenteriako Andra Mari Abesbatzak hasiera eman zion bertze 5 talde bilduko dituen egitaraua mamitsuari. Hurrengo kontzertua maiatzaren 5ean izanen da (Tuterako Fernando Remacha abesbatza arituko da kantu kantari). Egitarauak maiatzaren 26an jarraituko du, Donostiako Itxaso Talde Lirikoarekin. Ekainean bertze hiru kontzertu izanen dira Ega ibaiak zeharkatzen duen hiriko kantuzaleen gozamenarako. Aurrenekoa ekainaren 2an. Egun horretan, Estatu Batuetako Unibertsitateetako Abesbatza izanen da Lizarran. Ekainaren 9an, berriz, Oliteko Abesbatzak kantatuko du, eta azkenik, ekainaren 16an, Ereintza Abesbatzak berak amaiera emanen die aurtengo ekitaldiei. Azken kontzertu hau berezia izanen da; izan ere, Lizarrako kantariak Iruñeko Sinfonietta Akademika ganbera orkestraz lagunduta ariko dira eta, bertzeak bertze,



Ereintza abesbatzako kideak, San Pedro elizako klaustroan egin argazkian.
● KRISTINA BERASAIN.

Vivaldi musikagilearen Gloria abestia kantatuko dute. Kontzertu guztiak San Juan elizan izanen dira, arratseko 20:45etik aitzina. Josetxo Arbeloa Ereintza Abesbatzako zuzendariaren erranetan, Lizarran betidanik izan den musikarekiko zaletasuna mantentzea da Udaberri-

ko Musika Zikloaren xedea. «Gure asmoa gero eta talde hobekartzea da; izan ere, hiriko musikazaleek izugarri eskertzen dute. Egitaraua prestatzeko orduan, orain arte izan ditugun irizpideei jarraitzen diegu. Sarritan zaila izaten da, izen handiko abesbatzak gurera ekartzea, baina

urtez urte lortu egiten dugu. Aurten, adibidez, egitarau aberatsa lortu dugula erranen nuke; izan ere, Errenteriako Andra Mari Abesbatzak, esaterako, bi milioi eskatu ohi ditu, eta guk milioi bakar batekin egitarau osoa prestatu dugu». Udaberriko Musika Zikloak Lizarrako Udalaren diru laguntza du, eta baita bertze zenbait elkarteren laguntza ere.

Ereintza abesbatza 1988ko martxoaren 3an sortu zen, Lizarra Ikastolan egin zen entsegu baten ostean. Bertzerik gabe, kantuan aritzeko gogoak bultzatuta, lehen saio hartan 37 lagun bildu ziren. Geroztik, 120 lagun pasatu dira talde-tik. Egun 50 bat pertsonak osatzen dute Ereintza, eta 175 bat abestiko zerrenda dute. Beraz, duela hamalau urte ereindako hazietatik sortu da zuhaitza, eta bertako adar gazteetako kimuak loratzen hasiak dira, aurten ere, udaberriarekin.

→ Kristina Berasain

Iruñea ●

Zuberoako musika emanaldia

GAUR ILUNTZEAN ZUBEROAKO musika goxoa entzun ahal izanen da Erraldoien Txokoan 20:30etatik aitzina. Zuberoako kantari eta musikari talde bi izanen dira Iruñeko Udalak antolatu duen emanaldi honetan. Aurrenekoz Pascale Elizondoborda eta Jean François Amestoy kantariak arituko dira tranpaldo gainean. Bikote honek Euskal Herriko Kantu Txapelketan sariak jaso ditu maiz eta ibilbide propioa ere egiten hasiak dira musikaren munduan. Kontzertu hau amaitu ondoren Jean Bordaxar eta bere musikari taldea arituko da kantu-kantari. Ekitaldi berezia prestatu dute gaurkorako zuberotarrak; izan ere, berarekin batera Barkoxeko hiru gizon kantari taldea «a capella» kantatuko dute Xiberoko antzinako kantu sorta. Haien artean Zuberoan antzestu diren azken Pastualetako protagonistak aurkitu ahal dira. Jean Bordaxarren kantuak landuak dira oso eta entzuleek musikaz gozatzeko aukera ezin hobea izanen dute.

Iruñeko Udalak, Nafar Ateneoarekin batera, euskararen alor ezberdinak landuko dituen hitzaldi sorta prestatu du ere heldu den maiatzarako. «Euskara erromantze hizkuntzen baitan. Ebro-Garona: komunikazio ezparru bat» izenburupean materia ezberdinetan adituak diren hizlariak arituko dira.

→ Kristina Berasain

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Gaur omen da eguna hastekoa. Kanpaina, diot. Aspaldian hasi zen...aurre kanpaina, gogorra gainera, baina...gaur omen da gogorrakoak ikusten hasteko eguna.

Albako duke berriak nahiko luke arerio bihurtutako zenbait tokitan berriz ere Nagusia izan. Oraingoan ez du Zior-ditik sartu nahi. Ez du behar. Nafarroan Nagusi Jaunak badiu menpeko corellar beamontesa bereak eta bi egiten.

Albakoak ez du Nafarroako Herri-Beherako gazteluak suntsitu beharrik. Beamonten oinak zapaldu ditu dagoeneko. Bardeako lurretan erresuma txiki bat sortu eta Fustiñanako gizontto bat egin dute atzerritarrek bertako errege. Epeka ari da inguruko jendearen gaineko ezpata arrisku-tsua etsaien eskuetan jartzen.

Agramontesek hortik gora topatu dute babesa, Iruñerrian eta Mendebaldean. Leringo kondearen pinordekoak bertan dauzka tropak sakabanatuta, han-hemenka erasoka.

Gaur omen da eguna

Iruñeko gazteluaren ari dira batzuk setiatzen. Satorren modura nahiko lukete azpijoko maltzurretan ibili, dorre galanten zutoinak errausteko. Erasotzaileen buruzagi dabil Burgosko gortean jaiotako Gaztelako erregina etorri berria.

Zaragozako mairuak lagun, Itoitzera iritsi dira soldadu hori-gorriak, Longidako ibarrean bizi diren jendeak eta animaliak ere ito asmoz. Iratiko uretan nahi dituzte den-dena sartu, eta, bide batez, Longidatik beherakoak ere mehatxatu dituzte larriki. Eskualde osoa bizi da orain beldurtibaina ez etsia.

Aspaldiko liskarren ondorioz, euskarak gorantz egin zuen ihes, eta baserri eta herrixka mendisuetan jaso zuen babesa. Azken urteotan, ordea, galdutako lurrak, Iruñerria barne, bereganatu ditu berriz ere hizkuntzak, bere biztanleek biziki maitatzen dutelako, arbasoen mintzaira inoiz ez dutelako erabat zokoratu.

Traidoreen morroiak, ordea, su eta gar ari dira agra-

montes euskaldun guztien kontra. Gorrotatzen dute gu berezi eta desberdin egiten gaituen edozer.

Belateko mendian hiritar guztien diruaz eginiko pasabideak konpondu behar dituzte, egin berriak badaude ere. Erotutako behiekin ez dakite zer egin, Lizarrara eta Zangozara doazen bideak bikoizteko ez omen dago aski diru, egin baino lehen saldu zuten Iparralderako bidea eta orain ez dago zer saltzerik, Abiadura Handiko Zera hori hartzeko ere Hendaia-ra joan beharko dugu hurrengo mendean ere...

Oraingoan Gebara eta Mendozatarren arteko iskanbiler arabarrak ahuldu eta Laudatan jarri dituzte Albako dukearen soldaduek akoartelamendu handiak. Helmuga bakarra dute horko zaldunek: kostaldea bereganatzea eta itsasaldera ematen duten eraikuntza guztiak birrintzea. Agian, Oinaz eta Ganboak, besteok duguna ikusita, eskarmentu hartu beharko lukete garaian dauden bitartean. Hau da, indarrak bildu eta erasoari eutsi, Zisneros kardinalaren ordekoa ez baita txantxetan mintzo.

Txantrea •

Gaur abiatuko dira jaiak

BORTZ EGUN ETA LAU GAUEZ izanen dira jaiak Txantreako auzoan. Gaur iluntzeko zortzietan botako dute txupinazoa Sarteneko Elkarteko kideek Txantrea plazan. Behin suziria eztanda egin eta gero, zer egin, zer ikusi eta zer entzun anitz izanen da auzoko karriketan datoren asteartea bitartean.

Joan den urtean Txantrearen sorreraren 50. urteurrena ospatu zuten bertako biztanleek, eta aurten ere badute ekitaldi gogoangarria; izan ere, Txantreako gaitariak 15 urte beteko dituzte. 1986. urtean hasi ziren gaita jotzen, eta dagoneko hamabortz urte pasatu dituzte auzoko karrikak alaitzen. Iluntzeko 21:00etan, dantzaldia izanen da Felix plazan gaitarien eskutik. Jarraian, Armonia Txantreana taldearen egoitzan bertsoafaria izanen da. Bertan, Angel Mari Peñagarikano eta Jokin Sorozabal bertsolariak arituko dira kantatzen. Gaueko ordu txikitetan, berriz, Drindots eta Cibayi taldeak entzun ahal izanen dira, bertzeak bertze.

Jai Batzordeko kideek biharko iragarri duten egitarauaren barruan, pilota partiduak, laien lasterketak, antzerkia, musika kontzertuak eta abar eta abar izanen dira ikusgai. Halaber, goiz osoan Ezkaba mendiko harrobietan eskalada eta rapel ikastaroak izanen dira ausartentzat. Igandean, berriz, jaietako egun handia ospatuko da. Egun horretan, aurreneko aldiz, margolan lehiaketa antolatu dute 11:00etarako. Parte-hartzaileek aukeratu ahal izanen

Datozen egunotan ez da aspertzeko betarik izanen

Gaur hasi eta hurrengo asteartea arte, Txantreako auzoa jai giro alaian murgilduko da, inoiz baino luzeagoak izanen diren jaiak ospatzeko asmoarekin. Karriketan kilikiak, musikariak, dantzariak eta abar eta abar ibiliko dira bertako eta kanpokoen gozagarri.



Cotilla eta Piripi Txantreako kilikiak asteburuan ere izanen dira auzoko karriketan ume koskorak zirikatzen.
• EGUNKARIA •

dute margolanaren gaia, eta margolari trebeenarentzat 50.000 pezetako sari bakarra izanen da.

Astelehenerako ere ekitaldi bixia prestatu dute txantreatarrek. Eguerdiko 12:00etan puntu-puntu, aurreneko ur mahu-kadaka izanen da bero-bero dau-denentzako. Gauerdian, berriz, Txutxin Ibañez eta Txihuahua taldeak kontzertua eskainiko du.

Azken eguneko ekitaldien artean ere badago zer goraiatu; esaterako, bizikleta ibilaldia eginen da, eta kirolzaleentzat ere piragua jaitsiera eginen da Magdalena zubitik eta Argan barrerna. Arratsaldean, herri kirolak eta umeentzako zenbait ikuskizun izanen dira: ipuin kontalaria, pailazoak eta ezustekoren bat ere, alegia. Beraz, ez da aspertzeko betarik izanen egunotan Txantrean.

→ Kristina Berasain

Lekunberri

Saralegik bihar bertze saio bat egingen du

MIGUETXO SARALEGI 329 kiloko koadroarekin saiatuko da bihar Lekunberri. Urteko lehen marka ahalegina izanen du, eta altxatzea lortzen badu, munduko errekorra jarriko du. Iazko maiatzean 328 kiloko harria jaso zuen, eta duela bi urte 327koa. Kilokakiloka, 33 urterekin, markak hausten ditu urtero-urtero Saralegik. Bere erranetan, sasaoi onean da, eta, 329 kiloko harria altxatuz gero, 330ekoarekin saiatuko da hurrengo hilabetean; eta are gehiago: hori ere jasoz gero, 331 kiloko koadroarekin ahaleginduko da ekainean.

Leitzarra urritik ari da denboraldia prestatzen, eta bere burua indarrez eta gogotsu ikusten badu ere, pisu horretako harriak ezin direla menperatu azaldu du. «Zaila bada ere, egin ahal dudala badakit; hala ere, pisua hain handia denez, gauza guztiak ondo egin behar dira. Harria kulunkatzen bada edo irriskatzen bazait, zailagoa izanen da dena. Lortzen ez badut, neure buruarekin haserretu egingen naiz; dena den, hurrengo egunerako pasa egingen zait», adierazi du Saralegik.

Koadroarekin markak ontzeko saioekin bertze urtebetez jarraitzeko asmoa erakutsi du, gero bertze harri batzuekin jarduteko. Handik aurrera txapelketara eta torneoetara itzuliko da berriro.

→ Kristina Berasain

ZAZPI
Miravalles, 9 TXANTREA

OKINDEGIA PANADERIA

KORIMENO TABERNA

BOKATA IRAULTZAILEAK JAI AURRERA ERAMATEKO

Lesaka kalea, 5 TXANTREA

Jai zoriontsuak!

HARPEA TABERNA

Afari bereziak 2.500 pezeta

Harriurdiñeta, 2-3 TXANTREA
Tel.: 948 14 50 30

TXANTREAKO HERRIKOA

ZURGGI

Jaiak bai borroka ere bai

YOSELEN KAFETEGIA

Era askotako pintxoak, bokatak eta afariak

Zorionak !!!

Ezkabako plaza - TXANTREA

AKELARRE

Kontzertuak, bilarra, futbolina

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu

Lesaka, 5. - Tel.: 948 13 42 05

Sexua gozamenez

Aurreneko ekimenean 3.000 gazteek parte hartu ondoren «Gozamenez» kanpainari jarriko da martxan

Sexualitatearen gainean dugun ikuspegia hainbertze lekutan erraten zaigunari lotuta egon ohi da. Hiritzuen mamuak uxatzeko, zenbait elkarteek gazteei zuzendutako 'Gozamenez' kanpaina jarri zuten martxan 2000. urtean. Gai hori jakin-minez, askatasunez eta beldurrik gabe mintzatzeko tenorea ailegatu zela uste izan zuten. Ekimenak neska-mutikoen artean haren harrera ikusi ondoren, 2001. honetan ere agerian utzi nahi dute sexuak makina bat aukera eskaintzen dela.

OROTARA 2.875 GAZTEEK PARTE HARTU ZUTEN JOAN den urtean Nafarroako zenbait talde eta elkarteek Iruñean, Lekunberrin, Leitzan, Lizarran eta Tafallan martxan jarri zuten *Gozamenez* kanpaina. Hiesaren Aurkako Batzordea, Gazteria Kontseilua, EHGAM, Cofes-Andraize eta Iturramako Cofes elkarteak jarri zuten martxan ekimen hau, eta aurten, herri horietan ez ezik, Aezkoa eta Sakana aldera ere zabaldu dute kanpaina. Sexualitatearen ikuspegi orokorra, zabalza eta aldekoa zabaltzea da xedea; izan ere, sarritan mezu kontraesan- kor, estereotipatu eta desitxuratu aunitz jasotzen dituzte gazteek. «Sexualitatea ez da inon argi eta garbi adierazten, ez karrikan, ez etxean, ezta eskolan ere; isilean gordetzen da, eta gazteek sexu-ahalmenak, sentipenak, desioak eta gisa bateko jokabideak dituztela ukatzen da», adierazi diote antolatzaileek NAFARKARIARI. «Kanpaina honen bidez, gazteen sexualitatea begiruné osoz atera nahi dugu agerira, zerbait on, aldakor eta aberasgarria delakoan», gaineratu dute.

Sexualitatearen alde ororen gainean gogoeta eta eztabaidarako giltza izan nahi du kanpaina, eta gazteek dituzten sentimenduak, desioak eta jokabideak ezagutzearren jarri zen abian. Aduiten erranetan, gazteek sexualitatearen inguruan informazio anitz dutelako ustea oso zabaldua dago, eta zuzenean egiaztatu ahal izan dute ez dela horrela izaten. «Sexualitatearen gainean dugun ikuspegia hainbertze lekutan erraten zaigunari egoten da loturik: eskolan, etxean, lagun taldean, komunikabideetan...

«Sexualitateaz hitz egiten duen horma»

SEXUALITATEAREN KONTZEPTUA OSO-OSORIK jorratu ahal izateko, Iruñerriko bederatziti institututako ikasleek unitate didaktiko batean parte hartu zuten. Bertan sexuaren inguruko zenbait lantegi egin ondoren, irakasleak galdera hau botu zuen: *zer da zuretzat sexualitatea?* Ihardespen bakoitza paperezko adreilu batean idatzi zuten, eta adreilu guztiak elkarren ondoan ipinita, horma bat eraiki zuten. Hona hemen 14 eta 16 urte bitarteko zenbait gaztek ideia, sentimendu, desio,

ilusio, arrangura eta irrien inguruan esandakoak: «Aniztasuna, irudimena, desioa, laztanak, fantasiak... askatasuna» «Erritmoa zure baitan dago» «Laztanak, begiradak, irribarreak, musuak, kilikak, xuxurlapenak... hori ere sexua izan ahal da» «Elkar konpartitzea. Zoragarria den unea» «Gozamenaren ibai ertzean jolastuz, zure sexualitateaz gozatu»

«Sexua, zorionez, gure gorputzaren baitan dago, eta aukera aunitz eskaintzen ditu. Zorionez, betiko da eta, nahi izatekotan, bertzeekin gozatu ahal duzu, edo ez. Zorionez, milaka usain eta hamaika kolore ditu. Zorionez, nahi duzunean agerian ipini edo intimitatean gorde ahal duzu. Zorionez, plazeraren babesean bizi, hazi eta hezi egiten gara. Gozamenez»

gizartean oro har. Horregatik, gazte askok *sexua berdin kotoa* dikotomia barneratu dute. *Gozamenez* kanpaina sexuaren bertze alderdi ugari landu ditugu, eta sexualitatea atsegin hartzeko modu bikaina izateaz gain, komunikatu, maitatu eta osasuntsu izateko bide ederra ere badela nabarmendu nahi izan dugu. Sexualitatea modu anitzetan adierazi ahal dela: ferekatuz, musu emanez, besarkatuz... Koitua sexualitatea adierazteko modu bat baino ez da, eta inola ere ez modu bakarra», azaldu du hezitzaileetako batek. Sexualitateak, hortaz, makina bat aukera eskaintzen dituela hedatu nahi izan du kanpaina, eta hura ezagutu

eta modu zuzen adieraztea, osasungarria izateaz gain, pertsonatuak izateko behar-beharrezkoa zaigulara.


Hitzak, lantegiak, erakusketak...

Gozamenez 2000 urtean egin da Iruñean, Lekunberrin, Leitzan eta Tafallan. Herri horietan hainbat jarduerara atera aurrera: hitzaldiak, lantegiak, erakusketak... Sexualtasun positiboa, gizatiarra eta integratzailea ematea helburu ekitaldiok, horregatik sexu lantegiak ez ezik ikastaroak ere antolatu dituzte: dantzak, henazajeak, masajea, makillajea, grafitiak, antzerkia, buztimbe, komikiak eta abar. «Sexualitateak zenbait alderdi baita: plazera, komunikazioa, afektibitatea, maza... horiek guztiak bateratzea ezinbertzekoa da pertsonen bizitzan garapen orekatua eduki ahal izateko. Lansexualitatearen bertzelako aurpegiak erakusteko baina dute», antolatzaileen aburuz. Halaber, programaren generako karkelak, esku orriak eta abar karrikaratu, eta gazteak elkartzeko diren lekuetan banatu: institutuetatik, tabernak, liburutegiak, eskalategiak...

Ekimen horien jarri zuten taldeek kanpainen balorazioa egin dute, eta oso kontent ageri dira lortutako emaitzekin. Gure pertsona guztiak desberdinak garelako mezuak balio izan du kanpaina, eta sexualitatea adierazteko modu diferenteak izan ahal ditugula ulertzeko ere baxa, pertsona orok bere sexualitatea adierazteko duela errespetatzen ikasi omen dute neska-mutikoei. Jokabide guztiak dira duin.

Gauzak horietan ere programari ekiteko asmoa erakutsi dute antolatzaileek, eta dagoeneko oinarriak eta metodologia zehaztuak. Aurten, kanpainen eremua Sakana eta Aezkoa ere zabaldu dute, eta Altsasu, Etxarri, Irurtzun eta Ortoko neska-mutikoei zuzenduta egonen da. Iruñean ere zuzentzia berri bat jarriko da martxan: «E-mail bat bidal dezala». Bertan institutuetako ikasleek sexuaren eta sentimendu inguruko mezuak trukatu dituzte, eta gero, adierazteko jaso egingen dituzte.

→ Kristina Berasain



ARGAZKIAK • IRUÑEAKO ARTE ESKOLAKO IKASLEAK

Roberto San Martin

• HIESAREN AURKAKO BATZORDEKO KIDEA



• MIKEL SAIZ

«Kondoia erabiltzeko erratean, arduratsu izateko da, ez beldurra sortarazteko»

■ Zer dela eta jarri zenuten martxan kanpaina hau?

Gozamenez kanpaina parte hartu dugun talde guztiak sexuaren inguruan aritzen gara, baina ikuspegi ezberdinetatik lantzen dugu sexualitatea. Guztiok gure irizpideak lantzeko programak egin ditugu, baina uste genuen sexualitatea ikuspegi orokor batetik ere landu beharra zegoela. Horregatik, 1999. urteko abuztuan bildu ginen aurreneko programa bateratu prestaten hasteko eta helburu bateratuak taxutzen hasteko. Behin oinarriak zehaztuta, herrialdeko bertze taldeetara jo genuen ideiak trukatzeko eta ekimena abian jartzeko. Elkarrekin lan egitea oso esperientzia polita eta aberasgarria izan da.

■ Zeintzuk irizpide hartu dituzue kontuan herriak aukeratzeko orduan?

Hiru irizpide izan dira nagusi. Aurreneko, kanpaina dezentralizatu izan behar zuela uste genuen, eta horregatik, eskualde guztietako herrietara jo genuen. Halaber, kanpaina egiten zen herriak aski baliabide izan behar zituen jarduerak aurrera ateratzeko, eta azkenik, giza baliabideak aztertu genituen; izan ere, premiazkoa zen hezitzaileak herrian bertan egotea.

■ Harrera ona izan al zenuten ekimena egin zen herrietan?

Bai, izugarri ona. Herrietako gazte-

ak guztiz inplikatu dira ekimen honetan. Guk zenbait proposamen eman genien aukeran, eta haiak, hautaketa egiteaz gain, jardueraren prestaketan ere lan izugarria egin dute. Oso pozik parte hartu dute ekimenetan, eta gu are pozago gaude ekimenak izan duen harrerarekin.

■ Zer aurreiritzi sumatu dituzue gazteen artean?

Sexuaren prebentzioaren inguruan aritzen garen taldeek kanpaina antz egin izan ditugu, eta baliagarriak izan direla ukatu gabe, badihuri, zuzenean ez bada ere, nolabait beldurra eragin dugula. Kondoia erabiltzeko erraten dugu behin eta berriro, baina hori arduratsu izateko erraten dugu, ez inori beldurra sortarazteko. Hala ere, gazteek informazio falta handia dute, eta haurdun gelditzeko eta sexu bidezko eritasunen bat hartzeko beldur dira.

■ Zeintzuk dira kanpaina berriaren helburuak?

Aurrekoan bezala, sexualitatearen alde ororen gainean gogoeta eta eztabaida egiteko bidea eman nahi dugu, eta, halaber, gazteei beren herrian eta herrialdean sexualitate alorrean aritzen diren elkarten eta baliabideen berri eman. Sexuaren inguruan argi mintzatzeari saihestu egiten da, eta guk horrekin apurtu nahi dugu. Finean, sexualitatea aberasgarri izan den ikuspegi bat saiatu gara jasotzen programa honen bidez.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Juan Irigarai Goizueta Mendi-txuri

Gutxi dira Larrekoren anaia zaharraren euskal izkribuak ezagutzen dituztenak. Are gutxiago dirateke, zalantzarik gabe, prentsa jeltzalean agertuaz gainera, *Diario de Navarra* egunkarian 1916an argitara eman zituen 'Montañesas' izenburupeko kolaborazio bakanen berri dutenak.



Juan Irigarai Goizueta, Pablo Ferminen anaia nagusia zena, Auritzen jaio zen, 1867ko urriaren 20an, eta hainbat urtetan Orreagako idazkari arizan zen. Anaia-arreben artean Juan izan zuen Larrekok adiskideena, denboran hurbilen zituelako. Elkarrekin ikasi zuten biek bai Iruñean eta bai Zaragozan ere, nahiz karrera desberdinak egin, Juan zuzenbidean lizentziatu baitzen. Juan Irigarainen lanak bereziki aterpetu zituzten argitalpenak Nafarroako EAJk sustatu *Napartarra* eta *Amayur* astekariak izan ziren, harrizkoa ez dena, beste senide zenbaitek egin antzera, beronek ere EAJn izena emana baitzuen. Bere euskal lanak sinatzeko Juan Irigarai *Mendi-Txuri* ezizena erabili ohi zuen, hurbileko toponimoa huraxe, Auritzen jaio, Auzperrira ezkondu eta Orreagan lan egin zuen pertsona batengandik espero daitekeen bezala. Gutxi da *Napartarra*-rako idatzi zuena, 1913an bakar-bakarrak; *Amayur*-en, berriz, anixko izkiriari zuen, komunzki Auritz-Orreaga aldeko kronikak. Aurretik, baina, Juan Irigarai *Diario de Navarra*-rako idatzi zuen, 1912an hain zuzen ere. Honek zera adierazten digu, Larrekoren kasuan bezala, Mendi-Txuri abertzaletasun politikora iritsi aitzinetik abertzaletasun kulturean murgildurik genuela, hau da, hizkuntzaren goratze soiletik ideia jeltzaleetara iritsi zen.

Gaur egunean euskararekiko erakusten duen jarrera zikoitza ukazina bada ere, ez da filusea *Diario de Navarra* egunkariak gure hizkuntzari eskaini dion tarte 1903ko otsailaren 25ean Iruñean estreinakoz atera zenetik. Komunzki hiru izan dira

argitalpen honen bizitzan ezarri diren aroak. Lehenbizikoa 1913ra arte luzatzen dena dugu, eta Nafarroako egunkari salduena izaterainoko bitartekoa da. Bigarren aroa 1913tik 1962ra arterainokoa da, sendotze garaia, Garcilásoren zuzendaritzapean. Hirugarrenak, aldiz, Garcilásoren heriotzaren ondoan izan zuen hasiera. Hiru garaietan euskarak bere tokia izan du. Egunean geroz eta hutsalago gertatzen den *Nafar izkuntz orria* ematen dute argitara, 1966an hasitako saila alegia. Bigarren aroan Jose Agerrenen kolaborazioak argitaratu ziren, astero-astero, 1915eko otsailtik 1919ko urtarrilerako bitartean. Lehenengo aroan, eta toki finkorik gabe, zenbait kolaboratzaileen lanak agertu ziren, gutxi baina intereseko, eta sinatzaileen artean honako hauek zeuden: Saturnino Ibarrola iruindarra, Antonio Iñarrea ezkuratarra, Joshepa Errekalde beratarra, edo oraingoan gure interesekoa den Juan Irigarai auriztarra.

Aipagarria da *Montañesas* izenburupean Juan Irigarai *Diario de Navarra*-rako 1912an taxutu zituen hiru laburretan uso-ehizarena bitan aipatu izana. Ez zirudien ehizarenak Irigaraitarrek aihar handiegirik zioten jarduera, hainbatetan dute aipagai eta. Uso ehizaldi batean, bestalde, hil zen Maistroneko Irigaraitarren Ramon aita,

bihotzekoak jota, harrapakinarekin tamainak sortu emozioari ezin eutsiz. Esan gabe doa, bestalde, XX. mende hasieran oraino sareen bitartez egiten zen Ibañeta aldean uso ehiza, Etxalarren eta mantendu den bezala, eta horixe da Irigarai erakutsi ziguna:

Usoak igezi: Izparringietan irakurtzen dugun bezala gure mendietako eizlariak aunitz naigabeturik gelditu dire beren aurtengo eiziaz, uso guti iragan eta ek goraki eta ezin arrapatu. Nor edo nondik joan dire? Ez-takigu, bañan dudarik gabe erran daike Frantziako aldean gure anaiak Sarako eta Aldudeko euskaldunak aunitz arrapatu dituztela. Saran bakarrik arkitu omen dituzte 4000 baino geiago beren saretan. Ez dire alfer egon (...) Aurten usok bertze urtetan baino goiago abiatu ziren. Baionako barran pasatu orduko abatari batek oiur egiten du eta gañera turruta yotzen du yakinarazteko zein aldetaik eldu diren, eta orra non berealaxe, abatari eta trapari guziak arraboska asten diren. Usoak iziturik beren baitarik bezala badatozi saretarat.



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Iruñe@.com

Etxean oinez joateko agindu eta alfer honek beti billabesa hartzen nuen bonobusik ere ez zegoen garai haietan. Iruñean dena 10 minutura zegoela erre-pikatzen zidaten etengabe. Urteak aurrera egin ahala, nagi profesionala bihurtu naiz. Izan ere, ziadade osoa klik bakar batera daukat. Etxetik mugitu gabe, ordenagailua piztu eta Interneteko sarean murgildu ondoren, Nafar hiriburuari buruzko hainbat berri jaso daitezke.

Iruñea hitza sartu eta 83 erreferentzia azaldu zaizkit. Ongi hasi gara. Hi, txikito, Internet katxarro hau sekulakoa duk. Mantsoago erreparatu, ordea, zakurren putza. Gure hiriaren aipamenik ez da egin. Kyotoko Manufacturing Company edo Genevako Transport Organizationak izen hori bera daukate. Eta horrela beste kasu guztiak. Ikaragarria.

Iruña hitza idatzi ostean, «you have 198 documents», dio PCak. Orain bai, seguru. Bilatzen hasi ondoren, urrutiko helbideak eta erakunde ezezagunak berriz ere. Izua nagusi pantailaren aurrean. Dardarka hasi zait eskua saguaren gainean. Bat-batean... Aleluia!, Iruñeko Udalaren orrialdearekin egin dut topo. Gure hiriaren inguruan erreferentzia nagusia sarean. Alkate andere Yolanda Barcina Anguloren irribarreak hunkiturik utzi nau. Gainera, ingelesez, gazteleraz eta euskaraz ere web osoa irakurtzeko parada eman dit Burgosko alabak. Aupa, Yoli.

Kanpotarrei begira dago egi-

na batez ere. Nola heldu eta zer ikusi. Iruñeko plano zehatza. Eta nola ez, sanferminei buruz txosten mardula. Etxekoentzat, berriz, Udal Zerbitzuak eta Hiriaren Plan Berria gertutik eza-gutzeko parada. Dena den, informazioa jasotzeko aukera zabalena *Pamplona* hitzak ematen du. 196 leihio zabalik dauz-kagu gela birtual honetan. Gurea ez da Pamplona bakar-ra munduan. Mexikon, Kolonbian, Perun eta Filipinetan ere izan badira. Bitxia benetan.

Hemengoari dagokionez, aipamen askok kirolarekin, historiarekin eta kulturarekin dute zerikusia. Baita politika eta Elizarekin ere. Horretaz gain, turismo gida, enpresa, ostatu, el-karte, hedabide, ikastetxe eta garraioen zerrenda luzeak. Bes-tetik, egunean eguneko informazioa eskura daukagu. Egu-raldia, albiste lokalak, erakun-deen erabakiak eta agenda. Nolanahi ere, orrialde gehienek uztailleko bestez eta entzierroaz bereziki ematen dituzte azal-pen amaigabeak.

Azkenik, bada beste bide bat Iruñeaz jakiteko. *Pampelune* saka-tuz gero, aurretik nabarmen-duriko informazio gehiena es-kura dago atzerriko zenbait hiz-kuntzatan.

Internetekin ere badugu iru-diak jasotzeko parada. La Perla Hotelean paratu duten Web Cam baten bidez, Gaztelu Plaza ikus daiteke zuzenean.

Ez zorabiatu nabigatzerako-an, eta bidaiaria ona egin. Betiere, hobe duzu oinez edo billabesan zeharkatzea Iruñea.

Ziria

• Motxorrosolo •

Mikatzegiak

A KORT. HONETAN ERE EZIN AIPATU LOTZEN GAITUEN KORAPI-loa. Edozer aitzinatzeo estakuru den hori, hamaikagarenez ikusezin bilakaturik. Bizitzak milaka aurpegi omen ditu eta horietako batzuk baliatu behar gazteen harat-honatak islatzeko. Alta, hastapenetan ere, bizitza mikatzagoa da. Hasi besterik ez da egin.

Alfonso Arteaga

NAFARROAKO GIZAKIA HELBURUKO TERAUPETA

«Prebentzioan ia guztia dago egiteko, eta lan jarraikia eskatzen du»

Orain hamar urte Gizakia Helburu sortu zuen kideetako bat da Alfonso Arteaga. Ordudanik, droga utzi asmotan hurbildu zaizkien 1.200 pertsonatik goiti hartu ditu erakunde honek. Erakundearen nondik norakoaz eta drogaren kontsumoak Nafarroan izan duen bilakaeraz solastatu zaigu.

DROGAREN KONTSUMOA BAINO kezkarriagoa menpekotasuna dela argi du Alfonso Arteagak. Baina horrek, gaur egun, konponbidea baduela erakutsi du arlo horretan lanean daramatzan hamabi urteetan. Gizarteratzea eta pertsonaren bilakaera dira lan horren ardatz.

■ **Nola laburbilduko zenuke Nafarroako Gizakia Helburuk 10 urteotan egin duen lana?**

Zaila da lan guztia hitz gutitan laburbiltzea, baina bada ideia bat argi utziko nukeena, hasieratik zabaldu dugun mezua egia bihurtu dela: drogaren arazotik atera daiteke. Eta hori egia bihurtu dugu bertatik pasatu diren ehunka pertsonaren bidez.

■ **Hamar urteotan drogen kontsumoa anitz aldatu da. Nola azaldu bilakaera hori?**

Aldaketa kontsumitzen diren substantziengatik gertatu da batez ere, baina baita kontsumitzen duen jende motagatik ere. *Heroinaren izurritea* deitu hartatik abiatu ginen, baina oraingo gazteek alde batera utzi dute heroina, eta bertze droga batzuk hautatu dituzte, lehenagotik ere ezagunak zirenak, baina kontsumoak goiti egin duena: haxixa, kokaina eta diseinu drogak.

■ **Gizakia Helburu programaz gain, bertze hiru egitasmo ere badituzue. Egitasmo horiek Nafarroako droga kontsumoaren errealtateari erantzuten diote edo, aitzitik, hutsunerik sumatzen duzue?**

Guk denbora honetan guztian jaso dugunari erantzuten dio. Gizakia Helburu da egitasmo nagusia. Pertsonarik desegituratuenean jotzen dute egitasmo horretara, barnetegian egoten direnak prozesuaren zati handi batean. Baina droga kontsumitzen duen jendearen soslai berria sortuz joan den heinean,



● MIKEL SAIZ

programa berriak jarri ditugu abian. Guraso eta nerabeak hasi ziren etortzen, gero eta arazo gehiago zegoelako gizarte talde honetan, eta hortik sortu zen *Suspertu*. 1997/98an alkoholarekin arazoak zituen jende anitzek jo zuen guregana, eta horrela paratu genuen martxan *Aldatu*, eta abian paratutako azkeneko programa *Eunate* izan da, kokainaren kontsumoak goiti egin ahala sortutakoa. Azken bi programa hauetan egunean zeharreko zerbitzua eskaintzen da gehiago, eta ez dute zertan lotan gelditu.

■ **Gizakia Helburu erakunde-ra jotzen duen norbanako bakoitzaren arazoa aski ezberdina izanen bada ere, izanen dituzte zenbait elementu komun gaixo hauek guztiek. Zeintzuk dira elementu horiek?**

Egia da pertsona bakoitza

errealitate jakin batekin datorrela, eta hortik abiatu behar izaten da. Baina elkarrekin hainbat arlo dituzte, eta horregatik tratamenduaren zati handi bat taldean egiten da, elkarri anitz lagun diezaioketelako. Ka-

«Droga kontsumitzen duen jendearen soslai berria sortuz joan den heinean, programa berriak jarri ditugu abian»

su gehienetan pertsona gisa desegituratze handia gertatzen da, familiarekin arazoak sortzen dira, eta, batez ere, interes falta. Ordura arte interesa pizten zieten gauzei ez diete arretarik paratzen, eta lanaren arda-

tzetako bat hori da, interes hori indartzea.

■ **Prebentzioa da egiten duen bertze lanetako bat. Lan handia dago egiteko arlo honetan, baita heziketa arautuan ere, ezta?**

Bai, gero eta kezka gehiago sortzen duen gaia da, baina oraindik ia guztia dago egiteko. Gutxi dakigu prebentzio lanean zer den eraginkorra eta zer ez. Gehien sinesten dugun lana lan jarraikia da, integratua eta integrala, eta ez hainbertze noizbehinkako kanpaina edo ekitaldiak. Heziketa araututik aisialdia eta familia bat eginez egin beharreko lana litzateke. Erratea erraza da, baina aitzinera eraman ahal izateko hainbat arlo hartu behar da kontuan. Erronka handia da ikastetxeetan, familian zein aisialdian gaiari kosk egitea. Kezka egon badago, eta guk hori nabaritu

soslaia

Alfonso Arteaga 1989an hasi zen Donostiako Gizakia Helburun lanean. Nafarroatik iristen zen jende kopurua aintzat hartuta, Iruñean egoitza jartzea pentsatu eta, hainbat jendekin elkarlanean, abian paratu zuen erakunde, 1991n.

Terapeuta lanak ez ezik, komunikazio arloz ere arduratzen da Gizakia Helburun. Bertako langileen lana «ezinbertzekoa» dela dioen arren, boluntarioek egiten dutena ere goraiatzekoa dela uste du.

Erakundearen 10. urteurrenaren kariatara, erakusketa ibiltaria paratu dute Nafarroako hainbat herritan. Bihar arte egonen da Berako Kultur Etxean, eta ondoren, Zangozan ikusi ahal izanen da, maiatzaren 2tik 12ra, eta Elizondon 14tik 20ra.

dugu, guk egiten dugun lanaz hitz egiteko baino gehiago, prebentzio lana nola egin galdetzeko deitzen digutelako gehienbat. Eta hori seinale ona da.

■ **Azpitarratzen duzuen bertze ideietako bat da kontsumitzen dena baino garrantzitsuagoa dela nola kontsumitzen den. Ba al dago informazio nahikorik drogen inguruan, eta hauen kalitatearen inguruan?**

Ez dakigu ongi. Batetik, inoiz baino informazio gehiago dago, baina egia da gazteek beti ez dutela informazio nahikorik. Hala ere, informazioarena ez da arazo nagusia. Ez badaude bertze lan hezigarriagoak alferrik da informazio hori. Haratago jo behar da, afektibitate, komunikazio, erabaki hartze... eta gisako gaiak landu behar dira nerabeekin.

→ Jon Abril



Nafar Kronika

Aitor Arotzena

Aste santuko gurutze-bidea

Aste Santua igaro berria dugu eta balantzeak egiteko ordua ailegatu da. Trafikoari dagokionez, hasi bezain laster lau hildako eragin zituen Nafarroan eta akautzerako, ehunik dexente goiti izan ziren bizia errepide bazterrean eta bidegurutzeean utzi zutenak. Joan den urtean baino gehiago izan omen dira, baina Trafiko Zuzendaritzak, publizitate kanpaina erabilitako irudi gogorrak eta xahututako dirutza ahantzita, topatu du horren arrazoi: eguraldi onaren eragina izan da, eguzkia ikusita jende gehiago ateratzen dela, alegia. Joan den urtean gertatutako istripuak eguraldi txarraren ondorioa izan zirela kontuan hartzen badugu, bertze ondorio garbia gelditzen da: egiten diren publizitate kanpaina gogorrak egiten direla eta egiten duen eguraldia egiten duela, ehunka hildako izanen dira etorkizuneko irteera-sarrera operazio guzietan. Kontuak kontu, etxetik hondartza, kanpin, landa-etxe, hotel edo dena delakoetara joatekoa eta alderantziz egindakoa izan dira, dudarik gabe, Aste Santuko prozesio edo Gurutze-biderik arrakastatsuenak. Erlijioari dagokionez, prozesio horien gainbehera nabarmen gelditzen ari da. Espainia ultrakatolikoan ere sumatu dugu, Almeria alde horretan, etorkinak aritu direla gurutze garraioan, mila duoren truke. Nafarroa ultrakatoliko honetan ez dakit horrenbertzera ailegatu den. Badakit Erribera inguruan arrakastatsua izaten direla gurutze-bide, aingeruaren etortze eta horrelakoak, baina mendialdean galtzen ari den ohitura da prozesioarena. Herri batzuetan ez dute pausoa eramanez duten lagunak topatzen. Adinean goiti joaten diren neurrian indarrak ahitzen ari zaizkie orain arte eramaten zuten, eta ez dute ordezkorik izaten. Herriren batean eskutitzak bidali dizkiete gazteei, baina erantzuna ez da sobera handia izan: batzuk oporretan daudela, bertzeak sinesten ez dutela... azkenean, Elizarentzat ere dexenteko gurutze-bidea izaten da Aste Santuko prozesioarena

gure aukerak

MUSIKA

► **Irurzun:** Apirilaren 30ean, astelehenean, 22:00etan, Irurtzungo Iratxo Elkartean, Amaia Zubiriaren kantaldia izanen da, Kultur Errota eta Sakanako Bierrik elkarteek antolatuta.

JAIALDIAK

- **Baigorri:** Igandean, Nafarroaren Eguna ospatuko da Baigorri (Nafarroa Beherea). Bertara joaten direnek ez dute aspertzeko betarik izanen, egun osoan izanen baitira herriko karrikak alaituko dituzten zenbait ekitaldi.
- **Burgi:** Almadiaren eguna ospatuko da igandean Burgin. Egunduan ekitaldi aunitz izanen dira: kontzertuak, dantzaldiak, erakusketak, jokoak... Almadiak goizeko 09:00etan lotuko dituzte, eta 11:00etan botako dituzte uretara.
- **Antsoain:** Euskal Jaiak ospatu dituzte herrian asteen, eta igandean izanen da egun nagusia. Goiz-goizetik eskulangintza erakusketa izanen da. Egunean zehar: kalejira, musika, bertsoak eta pilota partiduak izanen dira, Lapurbide parkean.

ANTZERKIA

- **Burlata:** Burlatako Udalak antzerki emanaldiak prestatu ditu egunotarako. Gaur, 20:30ean, Kultur Aretoan, *Egia itzelak* ikuskizun dibertigarria taularatuko du Pepin Tre aktoreak. Bihar, berri, Valenti Piñotek maisuki idatzi zuen *Tragedias y comedias de D. Abili en el Olimpo* taularatuko da, arestian aipatu leku eta ordu berean.
- **Huarte:** Dar-Dar taldeak *Alicia mirarien lurraldean* lana antzertuko du bihar, eguerdiko

12:00etan, euskaraz, Kultur Etxean.

- **Antsoain:** Euskal Jaien baitan, gaur arratsaldean, 18:00etan, Kukubiltxo taldeak *Txirrikiz* lana antzertuko du, Udal Kiroldegian.
- **Zizur Nagusia:** Zizur Nagusiko Gazteen Antzerki Tailerrak *trump* bere azkeneko lana estreinatuko du asteburuan. Emanaldiak gaur, bihar, etzi eta etzidamu izanen dira, 20:00etan, Kultur Etxean.

BERTSOLARIAK

- **Antsoain:** Xabier Legarreta eta Jexux Mari Irazu bertsolariak izanen dira gaur Txinparta Elkartean egingo den bertso afarian.

ZINEMA

- **Aranguren:** Igandean, arratsaldeko 18:00etan, Aranguren Ibarreko Kultur Etxean, *Baloia* filma pantailaratuko dute.

LEHIAKETAK

- **Bertiz:** Bertizko parke naturaleko aurreneko margo lehiaketa egin da aurten. Margolanak naturaren ingurukoak behar dute izan, eta 80 x 90 zentimetroko neurriak izan ahal dituzte gehienez. Maia tzaren 4an akituko da lanak aurkezteko epea. Diru saria 3.000.000 pezetakoa (120.000 libera) izanen da, garaile bakarrentzat.

• JOXE LACALLE



Magiazko Itzala

Altzifrearen itzala luzea zela ba omen genekien; haatik, gure kultur aberastasunaren lekuko den zantantzarrak sortzen duen itzalgunea oblongoa dela ere agerian gelditzen da; zantantzarrak gizonak erraldoiak ez diren arren. Badirudi antzinako kultur tradizio magiko horren izpiritua ere islatu egin dela karrika honen errepidean. Eta tradizioa, balio handiko altxor ezin galduzkoa bada ere, aldatuz doa, eta dagoeneko, bata bertzearen atzetik joan beharrean, bata bertzearen aldamenen ipini dira zintzarri joleak.